

Erabiltzailea:

Pasahitza:

SARTU

Pasahitza ahaztu al duzu?

+ Azken berriak

"Arauetatik kanpo zegoenaren bila joaten ginen, eta hori irakurleei gustatzen ez bazitzaie, ia hobe"

Gasteizen jaiotzen 1959an. Euskal filologian lizentziatua, Batxilergoko Euskal Hizkuntza eta Literaturako katedratikoa da eta Euskal Filologian doktore. **Panpinen erreinua** ipuin bilduma edota **Ohe bat ozeanoaren erdian** eleberria aurki ditzakegu bere lanen artean. Aurten **Narrazio tailerra** saiakera plazaratu du Erein argitaletxearekin.



Narrazio Tailer Telematikoa izeneko irakasgaia eman zenuen internetez 2004tik 2010era bitartean. Zer moduzko esperientzia izan zen hura?

Oso ona. Ikasle gutxiarekin hasi ginen, eta ni neu beldur pixka batekin ere bai. Izan ere, ikasleak informatikako gela batzuetan jartzen zituzten, baina normalean ez ziren irakasle baten zaintzapean egoten eta, noski, nola kontrolatu jendea distantziatik? Nola behartu ikasleak lan egitera? Buruhausteren bat edo beste eman zidan horrek. Neurri batean kontrola nitzakeen, baina ikasleen fede onarekin eta interesarekin kontatu beharra neukan. Dena den, gogoz hartu nuen; lan handia eskatzen zidan (tesi doktoralera bera ere utzi egin nuen urtebetez), baina bestalde ilusio handia egiten zidan proiektuak. Hasiera batean nolabaiteko esperimendu modura planteatu zen eta ikastetxeetan hautatzen zituzten bertan parte hartuko zuten ikasleak, asko oso onak gainera. Baina gero ikasleek eurek ikusi zuten notak jartzen ona nintzela, nirekin ez zegoela "arazorik", eta handik aurrera denetik agertzen hasi zen. Baina, diodan bezala, talde guztietan zeuden oso ikasle onak, benetan onak. Ez dakit etorkizunean idazten jarraituko duten, baina oso gauza onak egiten zituzten. Oso esperientzia polita izan zen.

"Orain liburu hau atera dut, kanonaren berri ematen duena, baina gu hasi ginenean kanon guztien aurka joan nahi genuen", zeuk esana. Zergatik?

Halaxe da, modernitatea eta postmodernitatea. Modernitatean beti kanonaren kontra joaten ginen, ez dakit lortzen genuen baina, nolabait, ereduaren kontra joaten saiatzen ginen. Eta nik diot ereduaren kontra joateko ere jakin behar dela zein den eredu, zer den klasikoena, hori ez egiteko. Badirudi gaur egun badaudela kanon batzuk eta oso bide tradizioetatik goazela, lehen baino askoz gehiago, askoz nabarmenago. Esango nuke guri, gutako batzuei behintzat, kosta egin zitzaigula modernitatetik postmodernitateara pasatzeko bide hori egitea, eta seguru asko ez dugu oso ondo egin. Gazteagoak etorri zirenean jada nahiko postmodernoak ziren. Atxaga bera ere postmodernoa izan zela esango nuke, eta gazte horietatik eredu ona izan zela, nahiko natural hartu baitzuten Atxagak egiten zuena, alegia, jendaurreko emanaldiak, hitzaldi bereziak, etab. Gure belaunaldia sarien kontra zegoen hasieran, Durangoko azokara joan eta liburuak sinatzea ez zela etikoa uste genuen, eta gure lehenengo liburuak ez genituen prentsaren aurrean aurkeztu; geroago etorri zen zerbait izan zen hori. Ez ginen lotsagabeak, nahiko apalak ginela esango nuke, baina publikoaren aurrean nabarmentzea ez zegoela ondo iruditzen zitzaigun. Ordea, hurrengo belaunaldiak garbi eduki dute hori kontakaria bat zela eta liburu bat kalean jartzen baldin baduzu promozionatu egin beharko duzula eta irakurleak bilatu beharko dituzula. Guk normalean ez genituen irakurlearen gustuko ziren gauzak egin nahi, benetakotasunaren eta arauetatik kanpo zegoenaren bila joaten ginen, eta hori irakurleei gustatzen ez bazitzaie, ia hobe; liburu bat asko saltzen baldin bazen, seinale txarra izaten zen. Zentzu horretan, Ramon Saizarbitoriaren *Ene Jesus* oso eredu ona zen guretzat: ez zen batere saltzen, oso minoritarioa zen, eta guretzat miresgarria zen hori. *Ene Jesus* ez zen batere kanonikoa, hain justu, literatura salgarrienaren kontrako ereduaren.

Eta barneratu al duzue azkenean postmodernitatearen kontu hori?

Uste dut ez dugula ondo barneratu. Nola edo hala batzuek bai; nire kasuan, neurri batean barneratu dudala esango nuke, azken bolada honetan leku askotan ibili bainaiz, elkarrizketa dezente egin baitidate eta lehen baino prestago bainago lehen uko egiten genien zenbait gauza egiteko. Euskararen Egunaren harira Donostian antolatutako Mintzodromora joateko deitu zidaten Foru Aldunditik eta baiezkotza eman nuen; garai batean 'orterada' bat irudituko zitzaigun hori egitea, oso komertziala izatea, geure burua saltzea, etab. Alegia, saiatzen gara, baina gure artean oraindik alde horretatik oso gogorrek direnak badaudela uste dut. Hala ere, birziklatu egin garena iruditzen zait, garai batean ez genuen pentsatu ere egingo orain egiten ditugun gauza batzuk egingo genituenik, pentsatzen ez genuen bezala Saizarbitoriak egunen batean gazte literatura egingo zuela, eta azkenean *Kandinskyren tradizioa* argitaratu zuen. Garai hartan halako kalbinista ateo batzuk ginen, etika batean oso zorrotzak.

Liburuan lan orijinalak baino lan pertsonalak egitea aholkatzen diozu irakurleari. Beharbada askotan orijinaltasunaren bila ibiltze hori ez da hain eraginkorra...

Idazle berriak edota idazten saiatzen direnak animatzeko garrantzitsua dela uste dut. Azkenean, idazleak beti ditu maite dituen eredu batzuk, eta ez ditu horiek kopiatzen plagiatzeagatik, baizik eta, hain gogoko dituzenez, neurri batean imitatu egin nahi dituelako. Baina noski, hori plagio bilaka ez dadin bakoitzak bere gauzean bete behar du lan hori, eta esango nuke izan ditudan ikasleek beti lortzen zutela egiten ari ziren hori euren bizitzako elementuekin betetzea, kasu batzuetan oso lan pertsonalak egiten baitzituzten. Uste dut ikastaroa internet bidez eman ordez irakasle presentziala izan banintz ez zituzketela gauza horiek idatziko: 16-18 urterekin sexu kontuez edo beraien joera sexualeraino hain garbi idaztea... Bazekiten beste ikaskideek ez zutela sekula euren lana irakurriko beraiek nahi ez bazuten ez zutela idatzitakoak publikatuko eta nik ez nuela ezer kontatuko. Aldi berean, gainera, helburu on batekin ari ziren. Tintin Tibetean adibidea aipatzen da liburuan: ikasleek ikusi zuten gazteentzako album bat izan arren, Hergék bere bizitza propioko elementu asko sartu zituela bertan, eta orduan konturatu ziren, nahiz eta kanon batzuk erabili eta egitura estandar batzuetan oinarritu, horren barruan benetan pertsonalizatu zezaketela idazten ari zirena. Eta berriz diot, idazten zituzten gauza batzuk oso onak ziren, benetan harrigarriak. Gogoan dut Zumaiko neska batek Simone de Beauvoir eta Sartre sartu zituela ipuin batean, 17 urterekin, txundituta geratu nintzen.

Ipuina eta eleberriaren inguruan zenbaitek esandakoak agertzen dira liburuan. Zein iritzi duzu zuk horri buruz?

Idazleok, normalean, esan ohi dugu ipuina ez dela inolaz ere nobela bat idazteko entrenamendua, eta egia da. Liburuan aipatzen duen Ignacio Aldekoaren metafora hori oso polita iruditzen zait, alegia, gurdiak uzten

+ Agenda

Irakurle taldea

Mohammed Xukiren *Ogi hutsa* aztertuko dute.

Gidaria: Isa Castillo.

Data: 2011-12-21

Non: Iurreta, Herri bibliotekan

Ordua: 19:00etan

Antolatzailea:

+ Ikus agenda

+ Liburuak



Abbadiaren sekretua

Morillo, Fernando

(0) iritzi



Hitzak fosil

Hartsuaga, Juan Inazio

(0) iritzi

dituen bi ildoak bezalakoak direla nobela eta ipuina, beti daude hor elkarrengandik gertu edo elkarren parean, baina ez dira inoiz benetan gurutzatzen. Liburuan agertzen diren teoriak ipuinak idaztera bideratuta egon daitezke printzipioz, baina ipuin luzeak edota nobelak idazteko ere balio dezakete. Bide batez, komikiak, zinea edota telesailak ere askotan aipatzen ditut. Gure garaian literaturari buruz teorizatzen zenean ia-ia mesprexatu egiten zen zinea, eta zer esanik ez telebista. Baina egia da gaur egun narratzaile bikainak daudela telebistan. Liburua idatzi nuenean kontuan hartu nuen nire ikasle batzuek egunen batean komikiren bat egingo zutela akaso, edo film laburrak edo luzeak. Horregatik, hemen agertzen diren teoriak, ipuinez gain, beste formatu batzuk idazteko ere erabil daitezke. Idaztea oso ona dela uste dut, edozer gauza idatzita ere, eta beti esaten nien ikasleei: "zuek agian ez duzue ipuin gehiago idatziko, baina egunen batean, hemendik urte batzuetara, gauza tristeren bat gertatzen bazaizue, gogoratu beti idatz litekeela gehiago. Akaso horrekin ondo sentituko zarete eta idazteak momentu txar hori gainditzen lagunduko dizue. Ez ahaztu hemen ikasi duzuen eta aplikatu zuen bizitzetan, eta idatzi, nahiz eta zeuen buruontzat bakarrik izan". Errespetu handiz tratatzen nituen beti, nolabait esateko, literaturkidetzat hartzen nituen, idazketakidetzat, eta hori oso garrantzitsua da. Asko balio zutela esaten nien beti, eta ipuina oso ona ez bazen, ondo zegoen alderdi hura nabarmentzen saiatzen nintzen: "kontura zara hemen zein ondo atera zaizun? Gauza batzuk zuzendu behar dituzu baina...". Horrek izugarriko efektua dauka.

Eta liburuan agertzen diren teoriak ikasita ere, baten batek esaten badu ez daukala zer kontatu?

Bada, pertsona horri esaten zaio badituela eredu batzuk, eta idazteko eredu horien arabera, alegia, sasiplagiatzeko, Rodarik eta Atxagak esaten duten bezala. Akaso ez ditu gero argitaratzeko modukoak diren gauzak egingo, baina ondo pasatuko du, dibertitu egingo dira. Egia esan, sistema honekin ez zen inor idatzi gabe gelditzen; kasu batzuetan ez ziren ikasle onak, akats ortografiko asko egiten zituzten, baina istorioak sortzen, ordea, ez ziren txarrak. Ez zen inor idatzi gabe gelditu, beti aurkitzen zuten zerbait idazteko modua. Eta liburuan planteatzen dudana bezala, idazteko modua denok aurki dezakegula uste dut; aurkakoa gerta liteke, noski, baina, orain arte behintzat, ez zait sekula tokatu.

Liburuan oso maiz erabili duzu Saizarbitoriaren obra adibide gisa...

Alde batetik, doktorego tesia egiten ari nintzen; bestetik, aspalditik miresten dut bere obra. Gainera, inork ez du Saizarbitoriak bezainbeste konta-teknika erabili obra batean. Beraz, Saizarbitoria altxor bat zen, atzerritar idazleak ez aipatu eta erreferentzia euskaldunak sartzeko. Are gehiago, Saizarbitoriak baditu atzerritar literaturatan ere askotan oso ohikoak ez diren elementuak, *Ehun metro* liburuan agertzen den *slow motion* edo kamera geldoaren teknika, esaterako. Hor, diskurtsoa edo berbaldia luzeagoa da istorioa bera baino, oso segundoko gutxitan gertatzen den zerbait luzatu egiten da, kamera geldo batekin bezala. Eta hori ez da hainbestetan agertzen literaturan. Eredu eta adibide asko ematen ditu Saizarbitoriak konta-teknika aldetik, inork baino gehiago, eta gainera, ez ditu edozein modutan erabiltzen. Beraz, ezinbestekoa zen bere adibideak erabiltzea. Egia esan, saiatu nintzen kasu batzuetan kentzen, Saizarbitoria hainbestetan ez aipatzeko, baina bere konta-teknika ugaritasuna harrigarria da, eta nolabait justifikatu nahi nuen hainbestetan aipatzea.

Jon Miranderen *Haur besoetakoa* ere gomendatzen duzu...

Konta-teknika baterako bakarrik, zehar estilo librea ondo ikasteko hain zuzen ere, ez edozein arlotan. Ez zait Jon Mirande pedofilo nazia gehiegi gustatzen, baina estilo aldetik *Haur besoetakoa* obrak balio handia dauka. Gauza askotan Mirande ez da oso mirestekoa, baina obra hori narrazio aldetik oso ona da: zehar estilo librea gure artean ongi erabili zuen lehenengoa izan zen, eta esango nuke literatura unibertsalean ere lehenengoetakoa izango zela seguru asko, lehena izan ez bazen; gero beste asko egon dira baina... Etika gauza bat da eta literatura beste bat. Ez zaigu gustatuko neskatxa gaixoarekin egiten duena, azkenean jazarpen sexual bat baita. Baina, hori hala izanda ere, konta-teknika izugarria da, zein ongi kontatua dagoen. Askotan pentsa genezake zer ote daukan liburu horrek, ia-ia pedofiliaren gorespen bat egiten baitu. Baina narratze aldetik daukan magia hori ukazina da. Eta, dudarik gabe, hortxe aurkituko dugu zehar estilo librea ikasteko doinua. Teorian esan dezakegu ez dakit nola egin behar dela, baina hori jakin ondoren liburu bat hartu eta musika hori intuitiboki hartzea izaten da onena, narratzearen musika hori askoz hobeto harrapatzen da modu horretan. Orduan, zehar estilo librearen teoria irakurri ostean *Haur besoetakoa* arretaz irakurtzen baldin bada, konta-teknika hori nahiko ondo barneratuko dela uste dut. Azken finean, nahiko obehkitboa izan zaitezke teknika horrekin, baina pertsonaiaren pentsamenduak oso ondo azaltzen dira, subjektiboak direnak; hau da, subjektiboak den gauza bat objektiboki kontatzeko oso modu literario ona da, eta horregatik, askoz hobeto iristen da. Beraz, estilo jakin horri begira gomendatuko nuke *Haur besoetakoa*, ez orokorrean. gogoan dut 68ko maiatzeko iraultzaile horietako bat, Daniel Cohn-Bendit, alemaniarra baina beti Frantzian ibilia, gaur egun Europako parlamentuan dagoena, ezkertiarra, ekologista... Dirudienez, honek bazituen gaztetako idazki pedofilo batzuk; garai hartan dena zen modernoa, dena zen transgresorea. Baina urte asko pasatu ondoren norbaitek ikusi zituen eta, "baina honek zer idatzi du?". Telebista frantsesean oso elkarriketa gogorra egin zioten, berak ahal zuen moduan bere burua defendatu zuen arren. Garaiak asko aldatu dira. Lehen zerbait literatura ona izan zitekeen hain zuzen ere kanonaren kontra zihualako, bide nagusitik desbideratzea baitzen kontua. Gaur egun, ordea, badirudi ia dena bide nagusi horretatik doala. Orokorrean hitz egitea beti da arriskutsua, baina nabarmena da orain lehen baino asko kanonikoagoa dela dena.

